

Data (Date): 2003/12/23

ARGITARATZAILERA (Éditeur): Euskal Editorea, SL
 ZUZENDARIA (Directeur): Martxelo Otamendi
 ZUZENDARIORDEA (Directeur adjoint): Xabier Lekuona
 EDIZIO ARDURADUNA (Responsable des éditions): Pilar Mendibil
 PUBLIZITATEA (Publicité): Irigarri, SL
 LEGE GORDA(LUA): SS-0662/03
 BATZORDE PAREKIDEA (Comission paritaire):
 galdegite fasean [en cours]

Prezioa (Prix): 0,80 euro

EGOITZA NAGUSIA (Siège social): Martin Ugalde Kultur
 Parkea, Gudarien Etorbidea z/g, 20140 Andoain.
 Telefonoa: (0034) 943-304030. Faxa: 943-300943
 Webgunea: www.berria.info
 Posta elektronikoa: berria@berria.info
 Publikizitate: publi@irigarri.net
 Harpidetzak: 943-304345

Alea (Exemplaire): n°159. zbka.

ORDEZKARITZAK (Délégations): Araba: Bizenta Mogel. 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-150452. Erredakzio faxa: 945-148307. Posta elektronikoa: araba@berria.info.
 Bizkaia: Fanderia 1. 105-106 modululak. Posta kodea: 48901 Barakaldo. Telefonoa: 94-4180120. Erredakzio faxa: 94-4385100. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info. Nafarroa: Iratzeko Monasterioa 45. 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-366522. Erredakzio faxa: 948-273752. Publikizitate: 948-366623. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info. Iparr Euskal Herria (Pays Basque Nord): Pelletier 9. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: (0033) 676-714810. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info

» jira

Egin eta gero

MAIALEN LUJANBIO

Eibar-Gasteiz autobidearen zati zabaldu berrian pentsatzen dut bai ote den oraindik erromantikorik, Donostiatik Iruñerakoa, egoskor, Azpirozko bide zaharretik egiten duenik. Obratzarrak egin artekoa da kontzientziarentzat errazena: trenak, etxeak, Guggenheim-ak... Egin eta gero, begitara mudatzeko kameleoi gaitasun izugarria dugu. Arbola zaharrak bota eta porlaneko sekueio erraldoiak aldatzen ikustea zaigu mingarri; ohitzea, bi eguneko kontua. Mendi bailarak asfalto erreka bezala, bihurtzen dira geure protestak, ja eginda dago eta total... praktikoa bat.

Egin eta gero, ez duk erraza, konpail AHT, Maltzaga-Urbina, Larra-Belagua... Azpirozko bideak bihurtzeko baino aldaera gehiago gure diskurtsoak. Erabiliko ditugu denak, baina argudioren bat beharko gure koherentzia salbatze alde asmatu: Leitzarango Autobidetik joaten garelara adibidez, hori delako modu bakarra Leitzarango Autobidea ez ikusteko. Igo txikizoiaren gainera Larra-Belaguako mendiparajea ere, lehen bezain ederra izango da teleaulkitik. Mendi-parajetik teleaulkiak baino ederragoa.

» bira

Errauskine

HARKAITZ CANO

Ura bere errautsetara hurbiltzen ari den honetan, estimatuko genuke, gure zaborrak ere, urteak bezala biogegradatuko balira, beren kabaz agortuz arrastorik utzi gabe. Zaborrari hildakoei eskaintzen zaien pleitesia bera eskaintzeko joera dago orain: erraustea. Moda kontua ere izan liteke, lehen lurrari ematen zitzaion orain zerurako izatea. Inork ez du errauskailurik nahi etxe ondoan. Nik ere ez nuke nahi, ez horixe. Eta ez dakit errauskailuen kopoenak egokiak diren, baina nago eztabaida kokatzen den lekua okerrekoa dela orain ere. Prest al geundeko zabor askoz gutxiago produzitzeko? Prest al geundeko, Alemanian bezala, famili unitate bakoitzeko kide kopuraren arabera legez ezarritako zabor kopuru gehiengo bat produzitzeko hileko, eta hori gaindituz gero, zerga gehigarri bat ordaintzeko?

Kontua da, gurean, ipuineko printzeak zapata solte bat topatuko balu ez litzaiokeela sekula burutik pasako etxez etxe zapata horren neurria egokitzen den zangoaren bila abiatzea. Zuzenean zaborrontzira botako luke zapata bakartua.

» martintxo



» hitzordua

Lizarra-Garazi berri bat

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA
 'TXILLARDEGI'
 IDAZLEA

Madriletik datorren eraso hazkor errabiatauek ez du izenik. Neo-franquiskak dira, eta ez dute disimulatzen. Kendu egin dute moztorra. Gure bila datoz, bokatak eta guzti.

Mayor Oreja, Sanz, Gurrea, Rabanera, Alonso, fatxak dira. Nahiz alandora urdina jen-daurrean ez jantzi. Euskararen mundu osoa gorroto dute: ikastolak, euskal unibertsitateak, euskal prentsa, euskalgintza osoa. Ut! Ut!

Euskal Herriaren ordez, Erdal Herria «Norlean» nagusi. Horra ametsa. Baina gainerakoak, non daude? Non dago Alli? Non «ezkerra»? Lizarbe, Pachi López, Múgica Herzog, Bono, Zapatero, Felipe González, non? Espainiako sozialistak, non?

Salbuespenak salbuespen, PPren magalean dautza. «Neo-Movimiento»-tik milimetro bakar bat urruntzen auzartzen ez direlarik.

PSOEek Euskal Herrian daukan arazoa ez da gaurkoa. Jatorriz heldu zaio. Arrotz jaio zen, eta arrotz dago oraindik. Katalunian gertatu denaz bestaldera. Maragall katalana baita, eta katalanista.

Indalecio Prietok azaldu zuen arazo hau jator eta zehazki: «Yo siento a Bilbao, pero no siento a Lequeitio».

Hala ere (eta hauxe zaigu gaur axola) PNVk gidatzen zuen lehenengo Jaurilaritzan sartu zen PSOE 1936ko urrian; orain Katalunian ERCrekin egingo duen bezalatsu.

Odon Elortza, Gema Zabaleta, izan ote daitezke biharko PSOEaren zuzendariak? Euskal alorreko bat baino gehiago txalotuko luke. Baina...

Gauden beha.

Ikusi ahal genituen denak Basta Yakoekin bat egirik, Zapatero tartean, joan den 13ko manifestazioan, Fernández Savater eta Martínez Gorriaren nanupean, Donostian barrena.

Fronte anti-euskalduna lanean ari da. Latz.

Baina bego hori. Eta begira dezagun etxe barrura.

Horiek horrela. Eta gu, zer?

Zeren zai gaudu gu 1998ko Irailaren 12an bezala jokatzeko?

Lizarra-Garazi dut gogoan. Noski!

Zeren eta gaur egun beste Lizarra-Garazi bat behar baitugu.

Orain dela bost urteko hura baino sendoago, osoagoa.

Programa, zein? Auto-Determinazioa.

Parte hartzaileak, nor? Indar politiko eta sindikal abertzaleak oro. Eta euskalgintzan nola-hala diarduten kultur talde eta herri mugimendu euskaltzale osoak.

Beren burua abertzale aitortu ez arren, gurekin eskuz-esku «Maltzagaraino» etortzeko prest dauden guz-

Orain eta hemen baztertu

behar den bakarra Lizarra-

Garazi berri horren sorrera

oztopatzen duten

pertsonak eta taldeak dira

tiak ere bai. Barruan. Nork esan du ezetz?

Hori lortzekotan, «suetena orain» eskatzen dute askok.

Nik neuk ere bai, eta ez gaur lehenengo aldiz. Aitzitik, 1999ko meniatendura hura, errakuntza historikoa izan zela idatzi baitut askotan. Euskal Herri osoak galdu zuen; eta erakunde armatuak ere bai. Urte hauetan ikusi duguna, bere buruz mintzo.

Baina alor politiko-sindikal-kulturalen zerbait sendo mamituko ez deno, ETAk ez du suetenik emango. Argi eta garbi errepikatu du hau; eta gertakariak baietsi egin dute.

1998an, Lizarra-Garazi Irailaren 12an sinatu; eta irailaren 16an, suetena.

Zerk idarokitzen digu gaur egun egoera errotik aldatu dela; eta, hortaz, bestaldera behar dugula jokatu?

Atsotitz famatua gogoratu, «orga idien aitzinean jartzea»... orga ez mugitzeko berme.

Lehen-lehenik, Lizarra-Garazi berri bat behar dugu.

Gure arteko herrak eta etsaigoak piztutzen dituen guztia behar da gaitzetsi eta baztertu.

Mementu larri hauetan, hain zuzen, urteetan barrena beren abertzaletasuna frogatu duten militanteak eta taldeak mintzea (areago, gartzelaz biderriaz ordaindu dutenak); edo-ta baztertu nahi izatea, eskandalagarria litzateke.

Orain eta hemen, baztertu behar den bakarra, Lizarra-Garazi berri horren sorrera oztopatzen, edo «gerorako» utzi nahi omen, duten pertsonak eta taldeak dira.